«Egoak ebaki banizkio, hobea izango zen»

Niaren literatura omen da poesia. Ez beti.

UXUE ALBERDI
Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik mozorrotzen gara?

Esaterako, harremanei beldur handia diegulako. Umetan, Haur Eskolan eta Lehen Hezkuntzan asko lantzen dira harremanak, baina gerora ahaztu egiten ditugu. Gero dena profesionalizatzen dugu, baita harremanak ere. Dena ekoizpenera bideratzen dugu, eta pertsona errentagarriak izan behar dugu, etekina ematen dutenak. Eta harremanek ez dute etekinik ematen, antza. Orduan, katamaloa ezinbesteko bilakatzen zaigu, izua ematen digulako jendearen aurrean garen bezala agertzeak. Arlo politiko eta publikoan asko gertatzen da hori eta, gainera, ondo ikusia dago politikari batek publikoaren aurrean gauza bat esan arren, kameratik kanpo etsaia denarekin beste era batera jokatzea. Geure buruarekiko konfiantza gutxi dugulako ere janzten dugu katamaloa. Aurrean dugunarekin zintzo jokatu behar genuke, aurpegia agerian dugula. Eta askotan komenientziaz ere janzten eta eranzten dugu katamaloa. Interes emozionalak, interes ekonomikoak... Interes mota asko daude, eta horien arabera jartzen edo kentzen dugu. Oraindik ere, zoritxarrez, erlijioek, gure kasuan kristautasunak, balore batzuk ezartzen ditu eta balore horien artean faltsua izatea dago. Pulpitotik beste gauza bat esaten den arren, saritzen dena faltsua izatea da.

Jende askok Katamalo proiektuaren bidez ezagutu zaitu, baina zu aspalditik zabiltza letren munduan.

Gertatzen dena da, euskaldunok ez dugula egiten duguna ezagutzen. Kopuru handiez ari naiz. Literatur munduan batak bestea ezagutzen dugu, baina hori ez da euskaldungoa, euskaldungoa hori baino askoz gehiago da. Datuek diote 800.000 pertsona garela euskara ezagutzen dugunak, eta hortik 8.000 direla euskarazko kultur kontsumoa egiten dutenak. Baina 8.000 horietatik zenbatek kontsumitzen dute euskal literatura? Ezezagutza handia dago. Niri gertatzea normala izan daiteke, baina, esaterako, Jose Luis Otamendi, edo Juanra Madariaga... oraintxe boteprontoan etorri zaizkidanak... 20 urte daramatzate idazten, eta 20 urteren buruan euren herriko 16-17 urteko gazteek ez dituzte ezagutzen. Horrek gabezia salatzen du, zerbait ez dago ondo. Euskalduna oraindik ez da euskal kulturaren kontsumitzaile pasiboa ere. Bila ez bazoaz, ez zaizu etorriko. ARGIA, esaterako. Nik badakit oraindik euskaldun askok ez dakitela ARGIA zer den. Gure amaren auzoko andreak *Berria* egunkaria existitzen ote zen galdetu zigun orain gutxi, haren semeari erreportajea egin ziotela-eta. Hainbeste urteren ostean ez zekien existitzen zenik ere. Hor gabezia handia dago. Euskalduna denak *Berria* zer den jakin behar du derrigor. Aurrerantzean, horrek izan behar luke gure erronka.

Poesia sozializatzea ez da lan erraza. Zuek lortu duzue.

Poesia eta musika uztartzea aspaldiko kontua da. EUTG-n *Susa* aldizkari bezala sortu zutenean, 80ko hasieran, Josu Landak-eta egiten zituzten horrelako gauzak. Guk musika talde bezala egin dugu, eta argi dago musika oso bitarteko ona dela mezuak, ideiak eta sentimenduak zabaltzeko. Agian, poesia hutsarekin zailagoa da, beste arreta bat eskatzen du, sakonagoa; hitzak bakarrik aurkezten zaizkizu eta zure ahaleginaren baitan dago hitz horiek ulertzea. Musikarekin pista asko ematen dira. Eta jende gaztearentzat oso formula erakargarria da. Guk ere *Hautsi da anphora* diskarekin deskubritu genuen *Etiopia* liburua. Musikak beste bultzada bat ematen dio poesiari, eta ez dauka bakardadean liburu bat irakurtzearekin zerikusirik. Gainera, argi dago Gorka Urbizu oso ona dela melodiak egiten, eta horrek garrantzi handia izan zuen. Eta egia da poesia sozializatu beharra dagoela, baina hori askoren artean egin behar da.

Gotzon Barandiaran

• PERTSONAIA •

Nortasun agiria

Gotzon Barandiaran 1974an jaio zen Larrabetzun. AEKn irakasle izana; Artez euskara zerbitzuan eta IVAPen lanean aritua, "hango lanagatik usteltzen hasi nintzela konturatu nintzen arte". Ordutik, Digitalidadea enpresan aritzen da euskarazko edukiak Interneten jartzen. Susako kidea da, eta Literaturaz Berbetan egitasmoaren, Bihotz Bakartien Klubaren (BBK-ren), Literatura Eskolaren eta Ahotsenea proiektuaren sortzailea eta kidea. Literaturaren eta irakurzaletasunaren inguruan gogoeta franko egindakoa. Bi poesia liburu ditu argitaratuta: *Arrakalak*, 2004an, eta *Katamalo*, 2008an. Azken poesia liburuan oinarrituta Katamalo proiektua jarri zuen martxan, lagun musikariekin batera poesia eta musika uztartuz.

Idazlearena lan bakartia dela diote askok, baina zu ez zara batere sortzaile bakartia, gehienetan beste egitasmo batzuen partaide gisa aritu zara. Zergatik?

Gauza bat da norberak etxean, bakardadean sortzea. Nik uste, bereizi egin behar dela nork bere buruarentzat sortzea eta argitaratzea. Sortutakoa norbaitekin komunikatu asmoz publikatzea da literatura. Jende askorekin lan egiteak apaldu egiten zaitu, asko apaltzen zaitu, eta beste perspektiba batzuk ematen dizkizu. "Neuretzat idazten dut" esaten dute askok, eta "ba orduan ez ezazu argitaratu" erantzuten diet. Zuretzat idazten baduzu zuretzat gorde, publikatzen baduzu ez da zuretzat. Eta talde lana ia ezinbestekoa da prozesu horretan, ze, niretzat, aurrekoek egindakotik eta inguruan dituenengandik ikasteko prest ez dagoena ez da sortzaile interesgarria. Horregatik da, besteak beste, bertsolaritza hain aberasgarria, beste batzuekin batera egiten delako.

Zer beharri erantzuteko sortu zenituzten BBK, Literatura Eskola, Literaturia...?

Sare baten ondorioz sortu genituen. Literaturaren inguruan kezka berdintsuak genituen jendea elkartu ginen, hausnarketa egin eta ondorio komun batzuek atera genituen denen artean. Pentsatu genuen idazle, irakurle eta eragileen artean zubiak egitea falta zitzaigula. Amildegiak estutu egin behar zirela. Horregatik antolatu genuen Literatura Eskola, Literaturia edo Ahotsenea. Ikusten genuelako euskal kultura, gutxika-gutxika, gero eta zapalduago dagoela, eta gero eta aukera gutxiago dituela inguruko kultura handi horiei aurre egiteko. Eta, batez ere, ikasteko gogo bizia genuelako. Daukagulako. Ikusten genuen hezkuntza araututik jaso genuen inputa, korpus hori guztia ez zela nahikoa, eta erreferentziak espainolak, frantsesak edo anglosaxoiak zirela. Ez zirela gureak, eta gureak zirenak ez zirela nahiko, eta oso zaharkituak zeudela.

Pentsatu genuen "ez badigute erakusten, bildu gaitezen eta erakuts diezaiogun dakiguna batak besteari". Eta horretan jarraitzen dugu. Bidea ez da agortu.

Kultur sistema kanonizatuak ez die zure beharrei erantzuten idazle gisa?

Idazleak egiten duena ezagutaraztea ez da bere lana bakarrik, bere lana ere badela uste dudan arren. Egoera normalizatuan akaso ez litzateke izan behar, idatzi egingo luke eta gero berak aukeratu zer egin: irakurle taldeetara joan ala ez, elkarrizketak eman ala ez... Hori egoera normalizatuan, baina gurea ez da egoera normalizatua. Ez politikoki ez soziolinguistikoki. Askotan ahaztu egiten zaigu hori, eta egoera normalizatuan dagoen kultura bati buruz bezala hitz egiten dugu geureaz. Euskarazko idazleen lanak gehiago zabaldu behar liratekeela uste dut. Kanona nork jarri behar duen ere denon artean adostu behar genukeela uste dut. Euskarazko idazle batek jaso dezakeen saririk handiena Espainiako Literatur Sari Nazionala izatea oso tristea iruditzen zait. Alde batetik, nik ez dudalako nire burua espainoltzat eta, beste alde batetik, badakidalako sari horrek ez daukala literaturarekin zerikusirik. Baina kanonaren gailurra hor dago. Hori irabazten baldin baduzu euskaraz idaztetik bizi zaitezke, euskaraz idatzitakoaren itzulpenetatik, alegia. Oso tristea iruditzen zait, eta horri konponbidea eman behar zaiola uste dut. Euskarazko literaturgintzan gauden eragileok irakurketa bateratua egin behar dugu. Nolako euskal literatura nahi dugun pentsatu behar dugu. Ze, bestela, beti egongo gara espainiarrek, frantziarrek edo kanpokoek ematen diguten oniritziaren zain. Eta hori ezin dugu onartu, niretzat behintzat ez du balio. Baina ikusten duzu: jendeak zoriondu egiten du euskarazko idazle bat Espainiako Sari Nazionala irabaztearren. Saria eta Nazionala. Nazioa Espainia da, e? Hor saritzen dena da eus-

BESTEREN AHOTAN

GORKA URBIZUK:

"Sarri albo batera utzita, (euskal) poesia Susaren katalogoari esker ezagutu nuen belaunaldikoa naiz. Egongelako apalategiak hala salatzen du: Cano, Suarez, Estankona, Aranbarri, Borda, Sarasola, Uribe... Elkarren ondoan dauden liburuek kolore bizia –bizia– ematen diote kabi duten altzariari. Hala, urrutitik kiku eginda ere, badakit kolore arreko alea Otamendiren *Erlojuen Mekanika* dela, urdina Izagirreren *Non dago Basque's Harbour*-i dagokion bezalaxe. Liburu zuria, gurean, Gotzonen *Arrakalak* izan da beti. Gerora etorri ziren elkar ezagutzea, Katamalo aroa eta hainbat adjektiboren esanahia hobeto ulertzea, hala nola altruista, koherentea, langilea edo apalarroa".



kaldun zaren heinean espainola zarela, eta hori oso tristea da, batez ere literaturarekin zerikusirik ez duelako. Erabaki politikoa da. Sari politikoa da guztiz, barregarri uzten duena Euskadi Saria eta barregarri uzten dituenak hemen ematen diren sari guztiak. Ez dute ezertarako balio hemengo sariek, horiek ez dute aterik zabaltzen, ateak zabaltzen dituena beste sari hori da.

Gure kulturaz dugun ezezagutza aipatu duzu. Ezezagutza horrek ze eragin du euskaldunongan herri gisa?

Eragina oso nabarmena da. Imajinario bat sortzen digu horrek. Zer jaten dugun, zer entzuten dugun, zer janzten dugun, nola orrazten garen, zer pentsatzen dugun, gauzak nola ikusten ditugun... Horiek guztiak erreferentzia kulturalak dira, politikoak ere bai, baina, batez ere, kulturalak. Kultura espainiar, frantses eta anglosaxoitik egunero, minuturo, segunduro sekulako tsunamia jasaten dugu, uholde etengabea. Horrek elikatzen gaitu, horren arabera egiten gara. Hasi egiten ditugun txisteetatik, eta Espainiako Sari Nazionala txalotzeraino. Eta hori asimilazio kulturala da. Eta asimilazio kulturalari ezin zaio erresistentzia hutsarekin erantzun. Horrek iraungitze data dauka. Kulturalki erasotako herria da gurea. Galbahe bihurtu behar dugu euskaldunok. Hori oso zaila da eta neurri drastikoak eskatzen ditu, baina agian hartu egin beharko dira.

Nola egin aurre kultur kolonizazioari?

Intsumisioa egin behar zaio eta galbahe bihurtu behar gara. Beldurgarria da jendearen erreferentziak zeintzuk diren entzutea; bere diskurtsoa egituratzerako orduan, pentsamendua antolatzeko orduan ze oinarri eta ze iturburu dituen jakitea. Iturburua izan daiteke Antena3 edo Radio Nacional de España, eta hori da pentsamendua, jakintza egituratzen duena. Oso larria da eta oso zaila norberagandik erauzten. Baina intsumisoa egiten hasi beharko dugu. Espainiako justiziari intsumisioa egiten hasi behar garen bezala, kanpoko kulturetako gauza batzuei erabateko intsumisioa egin beharko diegu.

Nazio politikoa eraikitzeaz asko hitz egiten da, baina nolakoa behar luke gure nazio kulturalak?

Ni ados nago Txillardegik esaten zuenarekin: independentzia lortuta askoz errazagoa litzateke. Baina ezin gara horren zain egon. Gure kultur nazioa nazio politikoa baino askoz aberatsagoa da, baina era berean ez dakit ez ote dagoen berdin zatitua. Hala ere, gaur egun nazio kulturala eraikitzea nazio politiko-administratiboa eraikitzea baino errazagoa delakoan nago, dudarik ez. Baina, horretarako, nork bere aldetik lan egiteari utzi behar diogu, apalagoak izan behar dugu, belarriak jaitsi behar ditugu pixka bat eta albokoak esaten diguna entzuten ikasi behar dugu. Ikasten ikasi behar dugu. Ze, esaterako, Euskal Herria Zuzenean 12 urte dituen jaialdia da eta, hala ere, batzuek Euskal Herriko musika jaialdiak duela bi urtetik hona Hegoaldean antolatzen hasi direnak direla esateko ausardia daukate. Eta eskua ematen ere ikasi egin behar da. Eta egoa... Euskarazko kulturan egoak ebaki egin behar dira. H-rik gabe, baina egoak ebaki banizkio, hobea izango zen.

Egoera politikoak nola baldintzatzen du egoera kulturala?

Baldintzatzen du, politikari jakin batzuek kulturari buruzko euren diskurtsoa inposatu nahi izaten baitute. Orain bertan lehendakari denak esan zuen La oreja de Van Gogh Mikel Laboa bezain euskalduna dela, eta hori ezin da onartu. La Oreja de Van Gogh Donostiako taldea

izango da, baina ez da euskarazko kultura. Ez dauka zerikusirik euskarazko kulturarekin: ez hizkuntzan, ez musikan, ez jarreran, ez ezertan. Eta euren lan esparrua ez da Euskal Herria. Euren lan esparrua, mundua izateaz gain, batez ere, Espainia da. Haientzat Euskal Herria ez da existitzen. Politikarien diskurtsoak eragin izugarria dauka eta, gainera, politiko-administratiboki zatituta egotearen eraginak eta kalteak nabarmenak dira. Gainera, diru publikotik bizitzera ohitu gara, ez dugu jorratu, esaterako, mezenasgoa, diru-laguntza pribatuetara jotzea, eta horrek asko zailtzen du nazio bezala egituratzea. Askotan, ikuspuntuz ere ez dugu nazio gisa jokatzen. Baina garrantzitsuena: kultura politika falta zaigu. Ez dago. Guk daukagun tragedia handiena da lau urtero karguetako pertsonak aldatzen direla, alderdiak eta ideologiak aldatzen direla karguetan, eta kultura horren menpe dagoela. Lau urtetik behin, hasi udaletatik Foru Aldundira eta Jaurlaritzara, Nafarroako Gobernura edo departamendura... Pertsonak aldatu egiten dira eta haien irizpidea ezartzen dute. Euskarazko kulturgilea horren pentzura dago, eta hori ezin da horrela izan. Euskarazko kulturan ari garen guztion artean hori gaindituko duen zerbait sortu behar dugu. Euskaldunari epe labur, ertain eta luzerako plangintza kulturala eskaini behar diogu.

"Euskarazko idazle batek jaso dezakeen saririk handiena Espainiako Literatur Sari Nazionala izatea oso tristea iruditzen zait. Alde batetik, nik ez dudalako nire burua espainoltzat eta, beste alde batetik, badakidalako sari horrek ez daukala literaturarekin zerikusirik"

Autozentsura garaia bizi dugu?

Bai, betitik. Zu diru-laguntza batzuen menpe bizi bazara eta zure antzerki obra produzitzeko une horretan agintean dagoenaren oniritzia behar baldin baduzu... ba, igual gauza batzuk ezin izango dituzu esan. Eta hori ere oso onartua daukagun zerbait da. Baina ez luke hala behar. Zergatik ezin dut dirua emango didan hura kritikatu? Dirua ez da agintariarena! Nik kritika dezaket agintari batek edo alderdi batek daukan kultura politika eta, era berean, harengana joan eta gauzak proposatu. "Nik hau proposatzen dut, uste dut euskal kulturarentzat ona dela, eta diru hau behar dut". Ezin dit ezetz esan ideologikoki bat ez datorrelako! Jarrera horrekin joan behar genuke administrazioetara eta instituzioetara. Baina beldurrez, gauza asko isiltzen ditugu.

Poza ere isiltzen dugu?

Euskaldunok pozik gauden momentuetan, euskaldun izateaz pozik eta harro gauden momentuetan, beti datoz kanpokoak egurra ematera. Badirudi ez dutela gu pozik egoterik nahi, eta euskaldun asko ere lotsatu egiten dira poza sentitzeaz. Egoera politiko-kulturala oso latza da, baina pozik egoteko eta zoriontsu izateko eskubidea daukagu, eta horretaz ez dugu lotsatu behar. Kantagintzan eta adierazpen kulturaletan ere normala da tristezia eta etsipena agertzea, baina poza agertzeaz ere ez dugu lotsatu behar, nik uste beharrezkoa dela. *Ostondu sakon poza* kanta sortu genuenean sueten garaia zen, eta kristoren poza sumatzen zen gure artean. Baina bazeuden ahots batzuk esaten zutenak "ez gaitezen hainbeste poztu". Zergatik ez? Guk pozik egoteko eskubidea daukagu beste guztiek bezala, eta pozik gaudenean agertu egin behar dugu. Pozik dagoen herriak sekulako indarra du.

Gure kultura kultura handiagoen artean bizi da. Haien aldean ditugun baliabide murritzekin, nola egin kontsumitzaileentzat interesgarri hain kultura txikia?

Gure kultura inguruan ditugun eta, askotan, zapaltzen gaituzten kultura horien aldean, ez da oso diferentea. Euskarazko musikan egiten dena ez da beste inon egiten ez den zerbait. Euskarazko musikagintzan egiten dena ez dago globalizaziotik aparte. Euskarazko literaturan egiten denak badauzka berezko ezaugarriak, gure-gureak diren erreferenteak, Txinan nekez ulertuko lituzketenak. Baina ez dut uste hain diferentea denik. Orduan, beste kulturetako eskaintza erakargarria baldin bada, zergatik ez da izango gurea? Ez dut uste pobreagoak garenik. Gainera, Euskal Herria alor guztietan oso gatazkatsua da, eta gatazka dagoen lekuetako literatura eta sorkuntza lana beti da oso interesgarria. Leku horietan oso sentimendu kontrajarriak sortzen dira, eta horiek askatzen direnean sortzen dutena oso interesgarria da, eta eragin handia izaten du inguruko jendearengan. Gurea oso literatura interesgarria da beste batzuen aldean! Gertatzen dena da euskaldunak ez dakiela. Badaki bila joaten denak, baina gehiengoak ez daki! Bide Ertzean-ek egiten duen pop-a La Oreja de Van Goghena baino txarragoa da? Inondik inora ez! Bi musikak emango bazenizkio alemaniar bati, esango lizuke Bide Ertzeanena askoz hobea dela. Baina ezezagutza handia dago. Eta erdal komunitatean zer esanik ez! Erdal komunitatearena oso mingarria da. Euskal kultura alboko gelan balego bezala bizi dira, baina tartean dagoen horma oso zabala ei da eta ez ei da ezer entzuten. Oso tristea da. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.